

IRISGARRITASUN eskuliburua

Gernika-Lumoko Turismo Bulegoa

Pertsona **GUZTIENTZAKO** baliabideak eta arreta



1. ed. 2026ko
EKAINA



Arreta irigarria



Gernikako Turismo Bulegoak hainbat baliabide ditu pertsona **GUZTIEI** arreta errazteko.

Argi orientatzeko, informatzeko eta laguntzeko pentsatutako bulegoa.



Atzeko sarrera eta plataforma jasotzailea



1

Sarbide egokitua atzeko sarreratik egiten da, atariaren bidez. Sarrera horretan plataforma jasotzaile bat dago gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzat.

3



2

Gainera, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, sarbide hau sarrera nagusia baino erosoagoa da; izan ere, hiru maila berdin baino ez ditu eta barandilla du.



Atea eta barruko mugikortasuna



Bulegoko sarrera nagusiak barrurantz irekitzen den atea du. Behin barruan, mugikortasuna eroso da, barruko espazioa **zabala baita** eta erraz mugitzeko aukera ematen baitu.



Arreta gune egokitua



Mostradoreak **arreta gune egokitua** du gurgil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzat.

Arreta hurbila eta altuera berean.



Begizta magnetikoa arreta gunean



Gainera, bulegoak **begizta magnetikoa** du arreta gunean. Sistema honek audifonoak edo inplante koklearrak erabiltzen dituzten pertsonekin komunikazioa hobetzen du, inguruko zarata murriztuz eta entzuketa argiagoa erraztuz.

Entzuketa argiagoa

Braillea eta ikusmen laguntza



Gernika-Urdaibairi buruzko folleto bat ere eskaintzen da **braillez** eta ikusmen murriztua duten pertsonentzako **lupa**.

Ibilbide egokitua



Turismo Bulegoak, gainera, **adimen desgaitasuna duten pertsonentzako bisita gidatu egokitua** eskaintzen du. Bisita hau **gurpil-aulkian** ere egin daiteke.



Irisgarritasuna turismo esperientziaren parte gisa.

Audiogida zerbitzua



Gernikako Turismo Bulegoak audiogida zerbitzua eskaintzen du, helmugako bisita irisgarriagoa, autonomoagoa eta erosoagoa egiteko. Baliabide honek turismo informazioa argi entzuteko aukera ematen du, **QR kode batzuk eskaneatuz**, **YouTuben** dauden **podcastetara** eramaten dutenak.

Audiogida bereziki pentsatuta dago irakurtzeko zailtasunak, ikusmen baxua edo informazioa ulertzeko laguntza beharrak dituzten pertsonen esperientzia hobetzeko, baita azalpenak audio formatuan jaso nahi dituen edozein bisitarirentzat ere.

IRISGARRITASUN eskuliburua

Gernika-Lumoko Turismo Bulegoa

Gernika-Lumo, oztoporik gabe ezagutzeko, gozatzeko eta partekatzeko helmuga

